

BERGARAKO AGENDA



Uztaila eta abuztua
2025





SEMINARIO

San Martin plaza 4
20570 Bergara

SARREREN SALMENTA:

www.seminarixoa.eus



Kultura Zerbitzua 943 77 91 59 kultura@bergara.eus



Musika, Antzerkia eta Ikuskizunak

Música, Teatro y Espectáculos



Haurrentzako Ekintzak

Actividades Infantiles



Kirola

Deporte



Hitzaldiak eta Ikastaroak

Charlas y Cursos



Laboratorium Museoa

Museo laboratorium



berdintasuna@bergara.eus

943779145-688811760



Ospakizunak eta Azokak

Celebraciones y Mercados



Tokia / Lugar



Agendako ekintza batean zeinu hizkuntza interpretazio zerbitzua nahi izanez gero, www.bergara.eus edo **B@Z** zerbitzuan eskatu dezakezu gubxienez aste beteko aurrerapenarekin. / Si desea contar con servicio de traducción de lenguaje de signos debe solicitarlo en www.bergara.eus o en el **B@Z** con al menos una semana de antelación.

UZTAILEKO AGENDA

1



🕒 19:00 Amezta Taldearen **"Kay Robot"**
ikuskizuna.

📍 Errekalde
parkea



KAY jenio-ero bat da, bere asmakizun eta adimen mekanikoz beteriko mundu batean bizi dena. Bizitzan arrakasta izan nahi du. Urrats bat harago doa, eta mundu naturala eta artifiziala uztartu nahi ditu. Gogor lan egiten du. Dena gaizki ateratzen zaio. Mundua txoriburuz beteta bait dago. Bere izaki mekanikoak matxinatu egiten dira. Infernu ilun-futurista bat sortzen dute. Ukitu apokaliptikoz beteriko gatazka. Hemen dator garrantzitsuena. Gizateria robotizatuarekin amaituko duen liskarra sortzen da. Imajinatzen duzu?

4



🕒 22:00 **BERUMUGA: Amparo Sanchez.**

📍 Espoloia



Amparo Sanchezek Ritual Sonoro disko berria aurkeztuko du, Amparanoia taldeko abeslari eta liderraren bakarkako bosgarren emana, bere alderdi intimo, espiritual eta pertsonalenean.

Raly Barrionuevo folklore artista argentinarra eta **Willy Fuego** abeslari eta ekoizle katalana laguntzaile dituela, gitarak eta ahotsak formatu akustikoan errepatatzen dituzte andaluziar artistaren abesti batzuk, bertsio eta kantu originalak son, bolero, chacarera, tex mex eta reggae gakoan.

5



BEDELKAReko merkealdi azoka.

6



San Martzial Erromeria.



9



⌚ 16:00 **Kafe-konpon.** Etorri, ekarri zure trastea eta ikasi zelan konpontzen diren tresnak!

📍 San Xosepe jubilatuen elk. 2. pisua

10



⌚ 10:00 **Bergara oinez,** Bergarako farmazien eskutik.

📍 Agorrosin

11



⌚ 16:30 **Uretako parkea: puzgarriak, ur jolasak...** Ekarri bainu-jantzia, uretako betaurrekoak, uretako oinetakoak eta ondo pasatzeko gogoa. Herriko ume guztiei zuzenduta.

📍 Seminarioko patioa



⌚ 22:00 **BERUMUGA: Los Wavy Gravys**

📍 Espoloia



Los Hijos Bastardos de Peter Lorre edo The Allnight Workersen bezalako taldeetan arituak izan, Rufus El Guarro eta Jorge Lorre anaiek (Family Folks, The Bo Derek 's, Lorre) talde berri bat sortu zuten 2014an, beren kontzertuak benetako Rock 'n Roll ospakizunak egiteko asmoz, fratak, surf instrumentalak, garageak eta baita punkak ere ezinbesteko hitzordua dutela dibertimenduarekin eta umorearen zentzuarekin. Horretarako, Ivan "Koko" Soutiño (Toxic Patrol, Breakin "Bones, Pegas Negras...) ekarri zuten kontrabaxurako.

12



🕒 22:00 **Arineketan musika taldea.**
Euriarekin Seminarixoan.

📍 Usondo
parkea



Arineketan Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaran musikarien proiektu bateratua da. Elkar hartze horren fruitua, argitaratu berri duten izen bereko musika lana.. Aspaldiko adiskidetasuna du oinarri, eta elkarrekin sortu eta musika egiteko beharrari erantzuten dio. J.I. Iztueta folklore biltzailearen 250. urteurrena, eta haren "Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia" liburua hartu dituzte abiapuntu. Hark jasotako doinu eta hitzek bidea ireki, euskal doinu eta erritmoak oinarri dituzten sorkuntza propioak gehitu dizkiote. Kolaboratzaile bikainak izan dituzte proiektuan zehar. Eñaut Elorrieta eta Ainara Ortegaren ahotsak esaterako, baita Joana Ortega, Ivan Casado, Agate Amilibia eta Xabier Zeberio musikariak eta Haatik dantza konpainia ere. Hortik aurrerakoa? Jolasa, broma, txantxa eta dibertsioa. Txistu eta Pianoaren arteko elkar-hartzea, eta ihesa. Bide batez, euskal folkloreko doinu zahar askori hautsak kendu eta gaur egungo dantza taldeei material berria eskura utziz. PARTE-HARTZAILEAK Iñar Sastre (Pianoa) Jagoba Astiazaran (Txistua) Ainara Ortega (Ahotsa) Xabier Zeberio (Biolina) Agate Amilibia (Txeloa) Dantzariak: Haatik dantza Konpainia.

17



🕒 19:00 **Zirkozaurre taldearen "Harreman" ikuskizuna.** Euriarekin Seminarixoan.

📍 Munibe
plaza



"Harreman" Zirkozaurre konpainiaren ikuskizuna da, zirkua eta euskal musika tradizionala elkartzen dituen, itxura desberdineko bi mundu, baina gauza asko partekatzen dituztenak. 'Harreman' sustraietatik, identitatetik bidaia bat da. Ilbilbide honetan, zirkuko teknikak berrasmatu egiten dira, gure melodia ezagunenekin besarkatzeko eta eszena emozioz eta konplizitatez betetzeko. Ikuskizuna hastear dago eta harritu egin nahi zaitugu. Gure musikariek beren errepertorio entretenigarriko akordeak afinatzen dituzte. Taldeko gainerakoek koreografia guztiak buruz errepasatzen dituzte. Malabareen txanda da: pilotena eta mazoena. Dantzena: euskaldunak eta garaikideak. Proposamen berezi honekin taldean gozatzeko garaia da. "Harreman". Hartu eta eman. Partekatu. Harremanak izatea. Oroimena atzera bota eta, aldi berean, aurrera begiratu eta amain eman.

18


 ☰ 22:00 **BERUMUGA: Itziar Yagüe Group**

📍 Espoloia




Madriren bizi den euskal jatorriko abeslaria eta konpositorea, autoproduzitutako bi diskorekin eta Bessie Smithi eskainitako hirugarren batekin. **Itziar Yaguek** bere ibilbide musikala kazetari eta komunikazio aholkulariaren lanbidearekin uztartzen du. Caravan Jazz aldizkari digitalean kolaboratzen du eta komunikazio estrategiak diseinatzen ditu beste artista musikal independenteentzako. Ibilbide luze baten ostean, 2024an Madrilgo Cafe Central enblematikoan debutatu zuen, New Orleanseko jarduera musikalean murgildu zen, Donostiako 59. jazzaldian jo zuen lehen aldiz, eta blueswoman Bessie Smithi egindako omenaldia grabatu zuen Paul San Martin pianistarekin, kritika bikainak jasotzen ari den lana berau.

19


 ☰ 22:00 **Aria musika taldea.**
Euriarekin Seminarixoa.

📍 Usondo parkea



ARIA 2023an Donostian sortutako musika taldea da. Euskarazko pop kantak egiten ditu giro intimista bati ukitu elektronikoa gehituz. Proiektuaren atzean Marina Landa kantautorea dago. Bere abestiei doinu eta forma berriak eman nahian, teklatuetañ Iñaki Ortego Lauroba taldeko pianista ohia, baterian Ion Larrañaga, gitarra elektrikoan Iñaki Olaskoaga (Badmintones, Aphaxia) eta baxuan Maialen Urretabizkaia (Alargun Beltzak) batu zaizkio. Italiarazko hitza da ARIA, aire euskaraz. Naturarekin harremana, lasaitasuna eta beste dimentsio batean murgiltzeko aukera aldarrikatzen ditu taldeak pop melodia atseginen bidez. Airean hegan egin eta kezak alde batera utzita, abestea nolabait badelako barnea askatu eta besterik gabe flotatzea bezalakoa.

20



🕒 11:00 **Bergarako Txistulari Bandaren Santa Marinako kalejira eta kontzertua.**

📍 Poligonoa Santa Marina



🕒 12:00 **Bergarako Musika bandaren kontzertua.**

📍 Udal pilotalekua

25



🕒 10:00 **Bergarako Txistulari Bandaren kalejira.**

📍 Basalgo auzoa



🕒 22:00 **BERUMUGA: Al Dual**

📍 Espoloia



Rock-and-roll klasikoaren maisutzat ezagutzen den musikari honek zintzo erreproduzitzen ditu 50 eta 60ko hamarkadetan egiten zen musika amerikarren soinuak, eta bertute horrek nazioarteko izen ospetsuenetako bat bihurtu du rockabilly eszenako. Gitarra moldakor eta talentudun hau, abeslari aparta izateaz gain, bikain uztartzen du rock and rolla country edo bluesa bezalako beste batzuekin.

Al Dual musika artista moldakorra dugu, eta nazioartean ezaguna da amerikarren soinu klasikoei dien fideltasunagatik

ABUZTUKO AGENDA

6



Ikastaroa: Donostiako Hamabostaldiko organo zikloa.

10



San Lorentzo eguna.



🕒 18:00 **Donostiako Musika Hamabostaldiaren organo kontzertua.**

📍 San Pedro parrokia

16



San Roke.

Uztaileko ospakizunak

10



San Kristobal jaiak.

Ospakizunak, uztailaren 9tik-13ra.

📍 Aldai Egia
auzoa

18



San Marina Eguna.

Ospakizuna, uztailak 20.

📍 Aldai Egia
auzoa

25



Santiago jaiak.

📍 Goimendi
Basalgo

26



Santa Ana jaiak.

Ospakizunak, uztailak 25, 26 eta 27.

📍 Aldai Egia
auzoa

Abuztuko ospakizunak

15



Andramari.

📍 Elexamendi
(Angiozar)

24



San Bartolome jaiak.

📍 Zabaletamendi
(Angiozar)

29



Kofraixak.

Ospakizunak, abuztuak 25, 26 eta 27.

📍 Osintxu

EGUAZTENAK OXIRONDON

Uztailak
2-9-16-23-30
Abuztuak
6-13-20-27

🕒 17:30 Baserritarren
azoka eta sukaldaritza
zuzenean Elikaeenak
gidatuta.



HILABETERO



KZGUNEA BERGARA Ikastaroak

Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:00-13:00

Informazio gehiago: www.kzgunea.eus

943 023 626

BERUMUGA

25. Edizioa

BERUMUGA

Uztaila 2025 - Espetakia 22:00 Bergara

04 *ostirala*



11 *ostirala*



18 *ostirala*



25 *ostirala*



BERGARA - Viernes de julio



Diputación Foral de Gipuzkoa

ERAKUSKETAK

AROTEGI ARETOA

Barrenkalea 7

• 2025eko uztailaren 4tik 13ra •

BEART ELKARTEA



• 2025eko uztailaren 18tik abuztuaren 3ra •

MAITE CARRILLO

"Hausnarketak 30 margolanetan"

Pintura erakusketa

• 2025eko abuztuaren 8tik 24ra •

GURUTZE MUJICA ARIZMENDI

Pintura eta olio erakusketa

• 2025eko abuztuaren 29tik irailaren 14ra •

JUDITH PUJOL i PEINADO eta AIDA VALDÉS

"i<3 MALIBU"

Baterako proiektua

Asteartetik ostiralera 18:00-20:30
Larunbatetan 12:00-14:00 // 18:00-20:30
Igande eta jaiegunetan 12:00 -14:00

LABORATORIUM



10 urte
zientziari
ateak
zabaltzen

UDAKO ORDUTEGIA:
Uztailaren 1etik irailaren 15era arte

Astelehenetik larunbatera
10:00-14:00 // 16:00-19:00
Igande eta jai egunetan
10:00-13:00

Uztaila

1

🕒 19:00 **Kay, Robot. Ameztu antzerkia.**

📍 Errekalde

3

🕒 21:00 **Gure bizilagun onenak: Saguzarrak.**

📍 Laboratorium

5

🕒 10:15 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

🕒 12:15 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

11

🕒 19:00 **Hitzaldia: Eguzki sistema bidaiatzen.**
Ilatargi elkarte.

📍 Seminarixoa

19

🕒 11:00 **Museoko doako bisita gidatua.**

🕒 12:00 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

26

🕒 11:00 **Bisita gidatua: San Pedro eliza.**

Abuztua

9

🕒 10:15 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

🕒 12:15 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

23

🕒 12:10 **Bisita gidatua: Olaso Dorrea.**

30

🕒 11:00 **Bisita gidatua: San Pedro eliza.**

🕒 12:30 **Museoko doako bisita gidatua.**

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

• 2025eko apirilaren 11tik urriaren 19ra •

HITZIK GABE DIBULGATZEN

BISITA GIDATUAK: Museoa // Monumentala // Lorategi historikoak

Larunbatetan 11:00 eta 12:30

Erreserba egitea beharrezkoa da. Erreserba egiten duen lehenengo pertsonak
bisita mota eta hizkuntza aukeratuko du.

Ekintzetan izena emateko 943 76 90 03

BABESGUNE KLIMATIKOAK

REFUGIOS CLIMÁTICOS



ZER DIRA? ¿Qué son?

Muturreko beroaldietan babesa emango duten lekuak dira. Helburu nagusia herritarren ongizatea eta osasuna bermatzea da.

Son lugares para protegernos del calor extremo. El objetivo principal es garantizar el bienestar y la salud de la población.



NOIZ IREKIKO DIRA? ¿Cuándo se abren?

Ekainaren 1etik irailaren 30 arte beroagatiko alerta laranja edo gorria aktibatzen den uneetan soilik irekiko dira.

Ordutegia: 10:00-20:00.

Del 1 de junio al 30 de septiembre cuando se active las alertas naranja o roja por calor. Horario: 10:00-20:00.



SARRERA Acceso

Muturreko beroaldietan irekiko dira. Doako zerbitzua da. Aurretik izenik eman gabe bertan egon zaitezke.

Se abrirán en días de calor extremo. Son gratuitos. Se puede acceder sin inscripción previa.



ZERBITZUAK Servicios

- Tenperatura egokia.
- Edateko ur freskoa.
- Eserleku eta mahak.
- Aldizkariak.
- Temperatura adecuada.
- Agua fresca para beber.
- Sillas y mesas.
- Revistas.



Babesgune klimatikoaren sarea